

Aretxabaleta,
1993ko abenduak 9

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Eskerrik asko

• *Mendietak
alkate izateari
utzi dio*

• *Afizioak:
Josefa Horrillo*

• *Kirolak:
M^a Jesus Andueza*

42. zka.



Izena: Karmele
Abizenak: Agirregabiria Agirre
Non jaio: Gasteizen
Non bizi: Eskoriatzan
Langabea: Irakaslea
Ezkondua? Ez

- **Gizonak bizarrak ala bizar barik?**
- Bizar barik.
- **Emakumeak makilatuta ala makilatu barik?**
- Makilatu barik.
- **Gehien baloratzen duzuna pertsonarengan?**
- Zintzotasuna.
- **Gutxien gustetan zaizun janaria?**
- Gaztaia.
- **Biziko zinateke kotxe barik?**
- Ez dut uste, baina beste erremediorik ez balego bai.
- **Afiziorik?**
- Irakurtzea.
- **Bertsoak gogoko dituzu, zein da gehien gustetan zaizun bertsolaria?**
- Bai gogoko ditut. Gazteen artean oso gustoko dut Sorozabal, eta bestela Murua.
- **Euskaltegietako arazoan gainean, ze iritzi duzu?**
- Arazoa gertutik ezagutzen ez baduzu ez zara kontratzen benetan gertatzen denaz. Guk Atxabaltan Udal Euskaltegia dugu eta ez dugu arazo hori hain gertu.
- **Non hartuko zenuke parte: Kirol Direktiban, Politikan edo Elkarte Sozial batean?**
- Elkarte sozial batean.
- **Errezetan duzu?**
- Ez
- **Tabernak ixteko dagoen ordutegiari ondo de-ritzozu?**
- Ondo dagoela iruditzen zait. Bezinoei traba ez bazaie egiten behintzat !

• Euskaltegiko irakaslea.


- **Ze iritzi duzu eutanasiaren gainean?**
- Legalizatu beharko litzatekeela uste dut.
- **Desio bat?**
- Kanadara joatea.
- **Irakurtzen duzu horoskopoa?**
- Ez, baina irakurtzen dudana egunkariak ez daukako, bestela parean tokatu ezker bai.
- **Euskara batua edo herrikoa berba egiteko kalean?**
- Herrikoa, mantendu behar dugulako, bestela galtzeko bidean jarriko genuke eta gurea da.
- **Lurperatu ala erraustu?**
- Erraustu.
- **Azkenengo ametsa?**
- Etxe barria egiten gabiltza eta nire azken ametsa horri lotuta dago. Igeltseroa etorri zitzaidan eta azulejoak ezin zirela ipini esan zidan.
- **Seme-alaba kopuru ideala?**
- Bi edo hiru, hobe hiru bakarra baino.
- **Irakaslea izan ez bazina zer gustatuko litzazuke izatea?**
- Medikua edo erizaina.
- **Zer gurago, jefea mutila ala neska izatea?**
- Orain artekoak denak neskak izan ditut, beraz ezin dut konparatu.
- **Noiz elkartzen zara lagunekin?**
- Asteburuetan.
- **Depilatu argizariaz ala kremaz?**
- Argizariaz.
- **Zinean ikusi duzun azken filmea?**
- Parke Jurásico.

Lehen ziklo-krosa egiten zen, eta orain ez da egiten. Zer daukazu esateko horren gainean?



**Gurutze Martinez
(Langabetua)**

Ziklo-krosa egiten jarraitu beharko litzateke. Jende asko batzen zuen eta gauza inportantea izaten zen herrirako.



**Eugenio Lacalle
(Jubilatua)**

Nire ustez, tradizioa zuen gauza polita zen, ez dakit zergatik kendu duten. Ez dakit ze motiborengatik kendu duten, baina oso polita izaten zen.



**Pedro Cebrino
(Langabetua)**

Nik uste dut egiten jarraitu beharko litzatekeela. Nik ez dut ulertzen zergatik kendu den hori. Horrelako gauzak egiten zituzten herri gutxi zeuden, eta gainera gu lehenengotakoak izan ginen. Benetan, nik uste dut Aretxabaletako herriak barriro ere bueltatu dadi-gura duela.



**Mertxe Zapata
(Langilea)**

Nik uste dut barriro egin beharko liratekeela horrelako ekintzak. Niretako gauza polita zen eta jende asko ekartzen zuen herrira gainera.

KARTAK

Guk ere atsedeen txiki bat hartuko dugu

Santo Tomas jaiak direla eta, inprenta itxi egingo dute. Hori dela eta, Aretxagazetakook atsedeen txiki bat hartuko dugu. Hurrengo zenbakia abenduaren 23an kaleratu beharko litzateke, baina lehen esandako arrazoiarengatik Aretxagazetaren 43. zenbakiak ez du aben-

duaren 30era arte urten-go.

Ulertuko duzue-lakoan eta beste aste batean itxoingo duzue-lakoan gaude. Barkatu eragozpenak eta urtea bukatu baino lehen izan-goz duzue berriro ere gure barri.

**Aretxagazeta
Elkartea**

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Animatu zaitezte, zuen karten zain gaude eta. Idazten dituzuen eskutitzek sinatuta egon behar dute, anoni-moak ez ditugu argitaratzen eta.

Aretxagazeta



• Atzeratuen jaialdia joan zen zapatuan izan zen eta bertan 500 pertsona inguru elkartu ziren. Zaraia zinemako goikaldea eta behekaldea jendez bete zen. Ez zen ezer falta izan jaialdia horretan: Aretxabaletako korua, Arrasateko tuna ...



• Egun hauetan Landeta inguruan haretzak sartzen hasi dira. Hori dela eta, hirigintza saileko zinegotziarekin, Iñaki Pierruguesekin, jarri gara harremanetan. Bere esanetan, ekintza horrekin gure inguruko ekosistema poliki-poliki erreku-peratzen hasi gura da.

Loramendiren Batzar Berezia

Abenduaren 1ean Loramendi elkarteak batzar berezia egin zuen. Loramendi kultur elkarteak Loramendi ikastolaren asanbladan sortu zen, sare publikoan sartzea erabaki zenean. Zenbait bazkidek ez zuten ikastolaren lana amaitutzat jotzen, hainbeste lan eta ahalegin eginda gero, oraindik egiteko asko dagoela uste zuten.

Loramendi Ikastolak patrimonio bat zeukan. Hori dela eta, zenbait bazkide elkartu ziren ara-

zo hori aztertzeko. Alde batetik, Loramendi Ikastolaren bazkidegoa dago, euskararen aldeko lan handia egindakoa. Eta bestalde, herrian beste kolektibo bat dago euskararen alde diharduena: Beinke. Horrela sortu zen elkarte biak bat egitearen ideia. Elkarte bietan aztertu zen proiektua eta oso ondo iruditu zitzaizen ideia barria. Horrela euskararen alde lanean ibilitako bi belaunaldik bat egingo lukete.



Neguari ongi etorria egiteko edo, herriko plazako arbolak gertatzen hasi dira, adarrak moztu eta argazkian ageri diren itxuraz geratu zaizkigu arbolok.

IOSU
URDAITEGIA

Mitarte, 1

Martín
DELOJEDIA - DEKUTEGIA

Mitarte, 16
☎ 79 01 72

ZIRT - ZART
ESTILISTAK

ORDUTEGI INTENTSIBOA:
10etatik 6,30ak arte

Gorbea Kalea, 2 - Tfnoa: 77 09 44



• Mendi astearen azken egunean, Jon Antxiari omenaldia egin zitzaion, Urkulun zuhaitz bat landatuz eta harrizko oroiarri bat ipiniz.

Beinkek antolatutako Liburu Azoka

Datorren abenduaren, 22, 23 eta 24ean Beinkek antolatutako Liburu eta Diska Azoka izango dugu, Xoxueneko lokalean.

Liburu azoka horretan Durangoko liburu azokan egongo diren liburu onenak ere salgai egongo dira. Horretaz gain umeentzako liburu egokienak eskurat-

zeko aukera ere izango dugu.

Abenduaren 22an Liburu Azokak hasiera ona izan dezan, arratsaldeko 6etatik 8ak arte ekintza berezia egingo da. "Asisko Urmeneta" komikilaria izango da marrazkigintzak daukan majia erakustean.

Hirugarren munduaren alde

Hirugarren Mundu taldeak hainbat ekintza antolatu ditu abenduaren 17tik 21erabitaratean. Egun bereziotan hirugarren munduarekin akordatu gaitezen eta jendearengan solidaditate sentimendua indartu guran, Hirugarren Mundu taldekoek euren ekintzetan parte hartzera animetan gaituzte.


Abenduaren 17an mainguru interesgarria izango dugu udaletxeko Ganbaran, arratsaldeko 7etan. Gaia: "Zela ikusten da hirugarren mundua?". Hizlariak Resu Abasolo, Jaxone Gorroño, Juanjo Perez, Jon sarasua eta Arantza Akizu dira. Abenduaren 18an literatur lehiaketaren sari banaketa izango dugu Zaraia zineman eguerdiko 12etan. Abenduaren 21ean Jon sarasuak Salvadorri buruzko hitzaldia emango du. Abenduaren 18an eta 19an mahaia ipiniko dituzte Durana kalean informazioa zabaltzeko eta abenduaren 17tik 21era arte Hirugarren Munduari buruzko erakusketa izango da.

• Datorren abenduaren 11 eta 12an, Galartza auzoan, Santa Lucia jaiak ospatuko dira. Bertan, trikitilariak, auzkideentzat lunch-a...

• Joan zen azaroaren 26 eta 27an Arrasateko Gesalibar auzoko Aita Meni ospitalean herri komunikabideei buruzko jardunaldiak egin ziren. Euakal Herriko eta estatuko komunikabideetako ordezkari asko elkartu zen bertan. Aretxagazeta ere partaidetako bat izan zen. Jardunaldietan ikasitakoa praktikan jarten saiatuko gara. Gure asmo aldizkaria hobetuaz joatea da.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



ZENBAKI
Aholkularitza

Basabe industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoa: 79 88 75

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Biteri etorb. 15
Arrasate
Tfnoa: 77 12 39



lazko irabazlea. Ea aurten nor den zorteduna.

VI. Eskaparate lehiaketa martxan

Aurten ere eskaparate lehiaketa izango dugu Gabonetan. Sei urte bete ditu lehiaketak herriko denda guztiek parte hartu ahal izango dute. Erakusketaren data abenduaren 14etik urtarrilaren 6ra bitartekoa izango da, egun bi horiek barne.

Antolatzaileek dendari guztiei bete beharrezko oinarriak idatziz banatuko dizkiete. Horrez gain, sariak emateko garaian, epaimahaikoek imajinazioa, orijinalitatea eta Gabon mezuaren efektibitatearen kalitatea hartuko dute kontutan.

Epaimahaiaren gainean jardun dugunez, jakinaraziko dizuegu epaimahaia Udalbatzordeko kideez osatuta egongo dela. Euren erabakia apela ezina izango da eta abenduaren 31a baino lehen emaitzak argitara aterako dituzte.

Sariei begirada bat emanez, horrela banatuko dira: lehenengo saria 35.000pzta eta plaka, bigarrenak 25.000 pzta eta hirugarrenak 15.000pzta. Zorte ona opa diegu parte-hartzaile guztiei.



Mendietak alkate izateari utzi dio

Aretxabaletako alkate zazpi urtean izanda gero, joan zen astelehenean alkate izateari utzi zion Pedro Mendietak. Andramaixetako jai-egitarauan adierazi zuen, haixek izango zirela bere azken herriko jaiak, eta horrela izan da. Izan ere, joan zen asteleheneko pleno berezian eman zuen berria. Pleno berezi horretan adierazi zuenez, bere betebeharrak profesionalak direla eta, azken urteotan ezin izan dio alkate karguari behar den moduan erantzun. Egoera hori ikusita hartu du alkatetza uzte-

ko erabakia eta ez zenbait komunikabidek kaleratu dituzten arrazoien gatik.

Mendietak denei eskerrak emanez bukatu zuen agerraldia. Plenoko beste alderdi guztiek onartu zuten kargu uztea, baina PSOeko zinegotziak agintaldia bukatzeko falta den denbora laburreratik kargu uzte hori ez zela egokia esan zuen.

Astebete barru alkate barria aukeratu behar harko dute plenoan zinegotziek, itxura guztien arabera Aitor Antxia izango da hurrengo alkatea.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Aurten Loramendi Ikastolak 25. urteaurrena ospatzen du. Zilarrezko ezteiak. Arantxa Iza Loramendi Ikastolako lehenengo andereñoa izan zen. Berak ere 25 urte betetzen ditu Loramendi Ikastolan eta gainera aurten erretiratuko da. Denok ezagutzen dugu Arantxa, "Andereño Arantxa".



"Arantxa irakasleen irakasle izan da"

Loramendi Ikastolaren sorrera

Aretxabaletako Loramendi Ikastolak 25. urteurrena bete du aurten. Orain dela 25 urte, 1968. urtean herriko zenbait gurasoren inizatibaz sortu zen Ikastola. Guraso horiek irakaskuntza euskalduna gura zuten euren seme-alabendako.

Gurasook traba ugari pasatu behar izan zuten. Lehenengo traba legalak, ondoren lokala, dirua, haur gehiago eta gainera berrikuntza pedagogikoak ere bai. Traba guzti horiek gainditzeko, gurasoak betik prest zeuden behar zena egiteko. Lokalak behar zirela? Gurasoek Udalari eskatu eta lortu. Lokala lortu zutenean, fabrikatik urten, udaletxe zaharrra etorri eta makina bat ordu sartu zuten gelak garbitzen... Gura-

soen ahaleginaz gainditu ahal izan ziren traba guztiak.

Arantxa Andereñoa ere euren ekarri zuten Atxabaltara.

Irakasle beharra

Goian aitaturtako traba eta baimen ofizial guztiak lortu ondoren, irakaslea falta zuten. Garai hartan euskaldunek ez zuten horrelako ikasketarik egiten, baina gurasoek irakasle beharra ikusita Arantxa-rena jo zuten.

Arantxa bergararra da izatez, baina berak sasoi hartan Donostiako Gros auzoko tailer batean lan egiten zuen. Arantxaren ahizpa Atxabaltan bizi zen, eta berarekin kontaktuan jarri ziren. Azkenean kontrentzitu zuten denen artean eta bere ahizparen etxera etorri zen bizitzera. Arantxak ez

zuen irakasle titulorik, baina umeak asko gustatzen zitzaizkion.

Hala eta guztiz ere, herrian bazegoen irakasle titulua zeukan emakume bat; Dolores Arregi. Emakume honek ikastolaren esku jarri zuen bere irakasle titulua. Dolores zen ikastolako irakaslea paper ofizial guztietan.

Ondoren Arantxa ikastaro bereziak egiten hasi zen, lehenengo Bartzelonara joan zen eta gero hemen gure inguruan egin ziren ikastaro guztietan parte hartu zuen. Azkenean UNEDen irakasle titulo antzeko bat atara zuen, Arantxaren egoera berean zeuden irakasleendako. Berak han atera zuen titulua. Baina Arantxak betidanik euki du irakasle bokazioa, eta oraindik ere ikastaro desberdinetan dihardu, bere ustez irakasleak betidanik ikasten egon behar du.

Omenaldia

Arantxa Izak 25 urte bete ditu Loramendi Ikastolan eta gainera aurten abuztuan erretiratu egingo da. Hori dela eta, azaroaren 27an omenaldia egin zitzaion Zараia zinean.

Loramendi Ikastolak Arantxa omentzeko proposamena egin zion atzeratuen jaialdia antolatzen duen ARATZ Elkarteari eta hauek pozik onartu zuten. Arantxari egindako omenaldian gurasoak, lehen ikasleak, bere lankideak, gaur e g u n e k o ikasleak...elkartu ziren.

Berba polit ugari andereño Arantxarendako, bere lankideen esanetan: "*Arantxa Irakasleen Irakasle izan da*", eta gurasoen esanetan "*ikaragarri goxoa eta xamurrá da Arantxa umeekin, oso maitakorra*".



• Hemen ditugu andereño Arantxaren lehenengo ikasleak. Argazkian andereño Arantxa eta andereño Matilde ikusi daitezke. Haiek ziren garaiak, haiek.




• Haiek berriz iaz euki zituen neska-mutilak dira. Gabonetan ateratako argazkia da, dotore-dotore jantzita.



• Hona hemen beste ikasle batzuekin, orain 22 bat urte dituzte, baina argazkian 4 edo 5 urte.



Gure Andereño Arantxaren azken ikasurtea da hau, jubilatzeako ordua heldu zaio, amantala isegiko du aurten. Hala ere, azkenengo 25 urteotan pilatu-tako orritzapenak berekin izango ditu beti. Orain lasaia egoiteko denbora izango du, merezi-tako atsedena. Gu ere momentu hunkigarri horretan berarekin egon gura izan dugu, eta eskerrak eman.



Gure andereño Arantxa

• Zu hasi zinenetik hona, zer nolako aldaketak eman dira irakasteko metodologian?

• Egia esateko irakasteko metodologian ez dut igarri horrelako aldaketarik. Baliabide aldetik bai, noski. Gaur egun dauzkagun gauza asko eta asko orduan ez geneuzkan, materiala, jokoak... altzaririk ere ez geneukan. Ni akordetan naiz, umeak lurtean jartzen zirela eta genezukan apaltxo batzuekin baliatuz, hantxe egiten genituela marrazkiak. Bestela, irakasteko moduak orduan ikasitako bidetik jarraitzen du baliabide gehiagoz lagundurik.

• Ikasurte bereziki bai?

• Gehien gogoratzen

ditudan taldeak lehenengoak dira, behar bada hanka sartze gehiago ere talde hauekin egingo nirelako, nahiz eta gero konturatuaz joan hanka sartze horietaz.

Lehenengo talde hartan, 38 neska-mutiko izan nituen, hiru adinetakoak, hiru, lau eta bost urtekoak hain zuzen ere.

Gogoratzen dut bai, Donostian neukan lana utzi eta hilabete bi beste ikastetxe batzuetan praktikak egiten ibili nintzela. Niri beti gustatu izan zaizkit umeak, baina lan mundu honetan sartzeko ez neukan prestakuntzarik, praktika haiek lagungarriak izan ziren niretako eta baita bailarako ikastoletako andereñoekin (Oñatikoak, Arrasatekoak...)

egiten genituen bilerak ere. Harrez gero, urteroko izan ditugu ikastaroak, batzuetan Kataluniatik etortzen ziren irakasleak. Kataluniako irakasleen artean Fuster izeneko maisua gogoratzen dut bereziki, berak esaten zigan ez botatzeko ezer zakarrontzira, edozein gauza izan litekeelako baliagarria aprobeztatzen jakin ezker. Adibidez kortxoak, lumak... balio dezakete pisutsuena zein den kontrastatzeko edo ikumena lantzeko, laztasun desberdineko gauzak erabili ditzakegu. Asko ikasi nuen maisu harengandik.

• Gogoratzen duzu anekdotarik?

Bai, beheko ikastola zaharrean geunden, bi gela zeuden, bat kalera

begira eta ortura begira bestea. Nik orduan txikiak neuzkan, hiru urtekoak. Eta gogoratzen naiz berokiak isegiteko ez zegoela ezer, beraz guraso batzuek portatil bat egin ziguten. Isil-isilik ume batek artaziak hartu eta erropa artera sartu zen eta sekulakoak egin zituen. Ez zuen beroki edo jantzirik zulorik egin barik utzi. Ene, ene... zelako larritasuna pasatu nuen, umeak berrea egin zuen eta nik guraseoi zer esan jakin gabe, harek ez zeukan erremediarik.


• Zer iruditu zitzaizun herriak egin zizun omenaldia?

• Egia esateko larregi izan zen, eta lerro hauen bidez eskerrak eman gura diot Atxabaltako herriari. Alde guztietatik zorionak jasotzen nabil eta uste dut ez dudala meriturik egin, baina herriaren borondatea izan denez, honen aurrean eskerrak ematea beskerik ez dagokit.

• Abuztuan jubilatutako behar duzu, ze egiteko asmoa duzu aurrerantz?

• Donostiara noa bizitzera, baina agertuko naiz Atxabaltan. 25 urte asko dira herri zoragarri hau ahazteko. Orain denbora libre gehiago izango dut, baina ziur nago etxean geldi ez naizela egongo. Topatuko dut ere zer edo zer entrenituta egoteko.

Josefa Horrillo
 "Txumik", 29 urteko gazte honek, afizio berezia du: osteopatia. Berari medikuntza alternatiboa betidanik gustatu izan zaio eta hori dela eta Bilbora joan zen ikastera. Txumik hezur ugari ipini ditu bere lekuan eta berak dioenez, noizean behin osteopataren bulegotik pasatu beharko genuke. Osteopatiari buruzko kontu ugari kontatu dizkigu Txumik.



Josefa Horrillo, osteopata

• **Zela hasi zinen?**

• Betidanik gustatu izan zait medikuntza alternatiboa. Hori dela eta, Bilbora ikastera joatea erabaki nuen, baina dena dela, beti ikasten ibili behar duzu zientzia honetatik dena jakitea ezinezkoa da eta.

• **Azalduko zeniguke zer den osteopatia?**

• Osteopatia manipulazio tekniko bat da, teknika horrekin hezurak bere lekuan ipintzen dira, lekuz kanpo daude-nean.

• **Zergatik dauzkagu horrelako arazoak?**

• Postura txarrean ibiltzeagatik, arazo konjuntiboengatik...

• **Zer egin behar da osteopata izateko?**

• Hasteko ikasi egin behar da eta gero norberari gustatu egin behar zaio, jendearekin lan egiten da eta. Kontuz ibili behar dugu legeztatuta ez dagoelako. Askotan irakasle txar batekin topo egin dezakezu edo eta diplomarik gabe geratu. Guri oso garestia irten digu ikastaro on bat egiteak, eskola guztiak pribatuak direlako.

• **Zein da tratamendua?**

• Lehenengo eta be-

hin zer gertatzen zaien galdetzen diet, hori jakin eta gero azterketa bat egiten diet, estiramientoekin jarraitzeko, bukatzeko txarto dauden ornoak bere lekuan ipintzen ditugu, nahiz eta hori lehenengo bisitan ez lortu. Arazoa edozein izanda beti hasten naiz bizkarraldeko ornoekin. Sesioen artean bi edo hiru aste pasatu behar dira gorputza erreazionatu arte eta honek jendearengan sukarra, diarreak ... sortarazi ditzake.

• **Zenbat irauten du sesioak?**

• Ordu batetik ordu t'erdira, gutxigorabehe-

ra.
 • **Nortzuk etortzen dira zuregana?**

• Normalean bizkarreko arazoak dauzkate-nak, baina denok beharko genuke noizean behin osteopata baten bulegotik pasatzea.

• **Zela moldetan zarete sendagileekin?**

• Gero eta hobeto, nahiz eta konpenetrazio gehiago eduki beharko genukeen. Guk lasaiago lan egingo genuke etortzen zaizkigun gaisoak sendagileengandik datozela jakingo bage-nu.

• **Garestia da tratamendua?**

• Luzea bada garestia samarra izan daiteke, edozein tratamendu berezi bezala. Normalean sesioko 2000 ptz kobratzen dut.

• **Osakidetzan sartuta balego, hobeto irudituko litzaizuke?**

• Noski, eta ez guregatik, jendearengatik baizik.

• **Ze baldintza bete behar dira osteopata bulegoa zabaltzeko?**

• Ohe bat, eskuak, gorputza eta gogo handia.

• **Zer esan diezaiokizu etortzeko gogo daukan jendeari?**

• Beldurrik ez izateko, hona datozen batzuk beste erremediorik ez dutelako datoz. Medikiak konpondu ezin duena konpontzeko eskatzen digute, eta guk ez dugu miraririk egiten.



M^o Jesus Andueza: kirola hobbya baino zerbait gehiago

M^o Jesus Anduezak txikitatik euki du kirolzaletasuna, beti kirol munduan mugitu izan da, "nire gurasoek kirolarekiko zaletasuna barneratu zidaten, beraz niretako kirola hobbya baino gehiago da".

M^o Jesus-ek "sección femenina" izenaz ezagutzen zena ikasi zuen Madrilko Almodena ikastetxean. Horrez gain, zeinbat ikastaro egin ditu aerobic, gimnasia erritmikoa eta abar irakasteko.

Orain Atxabaltan Aerobic klaseak ematen ditu bai goizez eta baita arratsaldez ere, "Aerobic klaseak ematen hasi nintzen Atxabaltako andra batzuk niregana zuzendu zirelako, nik Arrasaten ematen nituen eta Atxabaltan ematera animatu ninduten. Beraz lanean hasi nintzen eta lokala eta baimena lortu nuen martxan jarri nuen aerobic ikastaroa".

Bere klaseetan edade eta sexu desberdinetako jendea izan du, "18 urtetik hasi eta 55 urte bitarteko jendea izan dut. Eta arraro samarra badirudi ere iaz mutil bi izan nituen, aurten orain arte ez dira mutil gehiago animatu baina Gabon ostean beste bi hasteko direla esan dezaket. Horrela, bide batez, argi utzi gura dut aerobic-a ez dela emakumeen kontua bakarrik, gizonek ere euren lekua izan dezakete. Batzuek badira ona bada besteendako ere bai".

Astean hiru bider ematen ditu aerobic klaseak eta horrela banatzen dira "Aerobic-a praktikatzean batez ere hankak lantzen dira, horregatik nire klaseetan hankak zein besoak koordinatzen ahalegintzen naiz. Beste batzuetan abdominalak egiten ditugu, sabel aldea landu eta hanketan indarra hartze-

ko. Egun gogorrena astelehena izaten da, martizenetan klaseen intentsitatea jaisten dut eta eguinetan lasai samar ibiltzen gara bestela jendeak ezin go lituzke nire klaseak jarraitu, kontutan hartu behar da nire ikasle gehienak aspaldian kirolik egin bakoak direla".

Jendeak, askotan kirola argaltzeaz erlazionatzen du eta zenbaitek uste du kirola egiteak gorputz liraina izatea suposatzen duela, "niregana norbait argaltzen badator argi esaten diot argaltzeko ahoa itxi behar dela, ez dago beste erremediorik. Kirola eginez gainera gizentzen zabiltzan sentazioa izan dezakezu, izan ere kirolaz giharrak gogortu eta handitzen direlako beraz oso oker dabilta asmo horrekin datozenak. Aerobic-ak, beste kirolen moduan, forman egoten laguntzen du, ez beste ezertan".

Almen kirol elkarteak 24 orduko futbito txapelketa antolatuta du, abenduaren 17 eta 18 bitartean. Arratsaldeko 7'30etan hasiko da Almeneko kiroldegian. Inskripzioa 5000 pztakoa da talde bakoitzeko. Apuntetako epea abenduaren 13an arratsaldeko 7etan bukatuko da. Apuntetako Express, Arlutz, Gurea edo Almenera jo dezakezue. Futbito maratoi horretan taberna zerbitzua eta musika edongo da 24 orduak girotzeko.

Abenduaren 11 eta 18an aqua-gym praktiketako aukera izango da kiroletxean. Lau saio izango dira, 9'30etatik ordubatak arte. Beharrezkoa da igeri egiten jakitea eta debalde izango dira. Apuntetako Pedroz galdetu 796461 telefonoan.

Gurutze horren babilan esandako errezu eta eskariek aldegin zuten? ala bertan diraute?

Erregu horiek egin zituzten Marianista batzuk betirako joan ziren, beste batzuk munduan zehar sakabanatuta daude.

Zer zen eta ... zer bihurtu dute! Non zegoen... non dago?

**A. Antxia
I. Urreta**



ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.


• Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den aldaba? (Kalea eta zenbakia)

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Azatzako iturria)

Aurreko lehiaketaren irabazlea UNAI BENGOA. Zorionak.



Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tfnoa:

Joan-etorriak



J.J. Aretxaga

Herri txikia da Atxabalta, eta herri txikia denez, gehienok elkar ezagutzen dugu. Eta badira herriko mugetatik kanpo ere ezagunak direnak. Mondragoeko Gesalibar auzoko Aita Meni ospitalean egin ziren herri komunikabideei buruzko bigarren jardunaldiak. Bertan zenbait atxabaltar hizlari lanetan ibili ziren. **Asier Aranguren**ek herri telebista martxan jarteko eman beharreko pausoak esplikatu zituen. Eta **Andoni Urzelaik** gai beraren gainean jardun zuen mahainguru batean. Horreitzaz aparte, **Inazio Garro**, **Koldo Azkoitia** eta **Arantzazu Loidi** moderatzaile lanetan ibili ziren. Gaiarekin lotuta dagoenez, lehengo egunean ATBeko programa batean **Kepa Oliden** ikusi nuen beste atxabaltar bati,

Mondragoeko alkateari, galderak egiten. Atxabaltar larregi mugitzen da ondoko herri horretan. Hori dela eta, ATB behar den moduan ikusteko antena ipiniko ei dute Murun.

Euskadiko lehenengo mus liga-txapelketan ere badira herritik hasi eta kanporuntz urtengo dutenak. Hona hemen hurrengo kanporaketarako klasifikatutako bikoteak: **Arkauz-Zubizarreta**, **Meabe-Etxabe** eta **Rico anaiak**.

Baina badira herrian hasi eta urrunago joan direnak ere. Nora eta Maria Cristina hotelera gainera. Gipuzkoako Futbol Federazioak 75. urteurrena ospatu zuen hotel famatu horretan. Ekitaldi horretan **Jose Luis Txintxurretak** eta **Vicente Etxandiak** domina jaso zuten. Egindako lanak jaso zuen saria.

Eta badira, eskemak apurtu guran edo, alde egin beharrean etorri datozenak. Nondik eta El Salvadorretik. **Jon Sarasua** bueltatu da eta hil honetan hitzaldia emango ei du hango esperientzia eta gorabeherak kontetako.

Eta bukatzeko, zurrumurrutxo bat kontatuko dizuet. Ume berezi batek jaino behar du herrian. Baina hori beste baterako utziko dut.



9 EGUENA

- Arratsaldeko 6,30etan Kurtzebarri Eskolako liburutegian **"Biblioteka beharrezkoa ote?"** hitzaldia, **Nerea Alzola**ren eskutik.

11 ZAPATUA

- Beinkek antolatuta: **"Berri Zahar"** eguna.

- Gaueko 10etan Zاراia zineman **"VIVEN"** filmea.

12 DOMEKA

- Zاراia Mendi Taldearen urteera: **Altunagara**.

- Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera: **Gaztelura**.

- Futbol partidua: U.D.A - Munibe K.T.

- Zاراia zineman, arratsaldeko 4,30etan **"SUDISTINGUIDA SEÑORITA"** eta 7etan **"VIVEN"** filmeak.

13 ASTELEHENA

- Arratsaldeko 6,30etan Kurtzebarri Eskolako liburutegian **"Hiru galdera ipuinei buruz. Ze ipuin? Zertarako? eta helduen zeregina?"** hitzaldia **Marian Bilbatuaren** eskutik.

18 ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zاراia zineman, **"JENNIFER 8"** filmea.

19 DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Cuenca Nervión**.

- Zاراia Mendi Taldearen urteera: **Muelara**.

- Zاراia zineman arratsaldeko 4,30etan **"ROBOKOP 3"** eta 7etan **"JENNIFER 8"** filmeak.

20 ASTELEHENA

- Arratsaldeko 3retan eta 4retan Kurtzebarri Eskolako 8. mailakoek **"GAUXORIAK"** liburua aztertu dute herriko 8. mailako guztiei.

21 MARTIZENA

- Egun osoan zehar irakur maratoia Kurtzebarri Eskolako aretoan.

23 EGUENA

- Trena herrian zehar.

24 EGUAKOTXA

- Olentzero.

25 ZAPATUA

- Murrukixo Mendi-

zale Elkartearekin **Kurtzebarri turroia eta txanpana jatera**.

- Arratsaldeko 4,30retan eta 7retan **"ALGUNOS HOMBRES BUENOS"** filmea.

26 DOMEKA

- Zاراia Mendi Taldeak, **Turroi eguna** Orkatzategin.

28 MARTIZENA

- Arratsaldeko 5etan Zاراia zineman **Pailasoak**.

29 EGUAZTENA

- Goizeko 10,30etan, Iturrigorri frontoian **P.I.N.-a**.

SEAT

Audi 

**GARAJE
OSKAR**
Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 77 07 94
79 91 84


ITURGINTZA

JJ


Tfnoak: 79 07 34
79 31 87

LEIBAR


ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



IURBALTZ
elKortea



Mitarte 21, behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA

TXIMAK

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Herriko plaza, 5
☎ 79 83 64

**Zatoz ezagutzera
ZUHAITZ
jatetxea!**



**BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!**

Tfnoa: 71 46 08
Astelehenetan itxita

GATZAGAN

RKLU

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S .A

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55

**ARETXAGAZETAKO
BAZKIDE** izan gura
baduzu deitu:
☎ 79 01 05

Arratsaldeko
3retatik 7retara

**Mobiliario
ARENAZA**

ALTZAIRUAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69
ARETXABALETA

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66

ARRASATE ERDIAN *Deba Garaiko zentru komertzial
bandiena, bertan erosketak izen propioa dauka.*

IBAI ARTE



*Erosketak egitean, paseo bat eginez, **bisita gaitzazu!!!***
Arrasate erdiko, komertzio eta zerbitzu Elkartea.



ATXABALTARRON ALDIZKARIA

Aretxagazeta Elkartea, Kultur -Etxea
ARETXABALETAKO
Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila